

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

MUTRIKUKO UDALA

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko apirilaren 10eko erabaki bidez ezgaitasuna edota menpekotasuna daukaten pertsonentzat garraiorako dirulaguntza emateko 2019 ekitaldiari dagokion oinarriak onartu zituen.

Kontuan harturik adierazitako oinarriak, diru-laguntza honi dagokion deialdia burutzen da eskariak aurkezteko epea irekiz.

Mutriku, 2019ko apirilaren 24a.—Alkatea. (2685)

Ezgaitasuna edota menpekotasuna daukaten pertsonentzat garraiorako diru laguntza deialdia. 2019 urtea.

1. artikulua. Xedea eta finantzazioa.

Deialdi honen xedea diru laguntza indibidualak ematea da mugikortasun arazo larriengatik garraio zerbitzu kolektiboak modu autonomoan erabiltzeko arazoak dituzten ezgaitasun edo menpekotasun egoeran dauden pertsonen, helburua izanik desplazatzeko zerbitzu alternatiboa edukitzea.

Deialdi honen baitako diru laguntzak emateari buruzko ebazpenak aurrekontuan kreditu nahiko egoteari baldintzaturik egongo dira. 2019ko ekitaldirako, gehienez ere, 6.300,00 €ko kopurua aurreikusten da udal aurrekontuako 04002230123100 aplikazioan.

Diru laguntza deialdi hau dagokion aurrekontu partida agortzean amaituko da.

2. artikulua. Onuradunak.

Menpekotasun izaera edota garraio zerbitzu publiko kolektiboak erabiltzeko mugikortasuna arazo larriaren ezin izateko pertsonak, beti ere, udalerritik kanpora joateko garraio bitarteko horiek behar dituztenak.

3. artikulua. Eskatzaileen baldintzak.

Diru laguntza honen eskatzaileek bete beharreko baldintzak honakoak izango dira:

1. Mutriku erroldatuta egotea.
2. Legezko menpekotasun izaera edota garraio zerbitzu publiko kolektiboak erabiltzeko mugikortasuna arazo larriaren ezin izateko pertsona izatea.
3. Eskatzailea jardunean dagoenean, hitzarmen kolektiboak, lan-kontratuak edo beste edozein egiaztagirik onura hori ez aitortzea.

4. artikulua. Diru laguntza jaso dezaketeko kasuak.

Garraiorako diru laguntza emango da honako kasuetarako erabiltzen denean:

1. Lan tokira joan-etorriak egiteko.
2. Formaziorako edo formakuntzarako zentroetara joan-etorriak egiteko.
3. Arreta goiztarreko programara joan-etorriak egiteko.

AYUNTAMIENTO DE MUTRIKU

Anuncio

La Junta de Gobierno Local, de 10 de abril de 2019, aprobó las bases reguladoras de las ayudas para el transporte de personas que tengan discapacidad o dependencia reconocida correspondiente al ejercicio 2019.

Considerando dichas bases, se realiza la convocatoria de estas subvenciones, disponiendo el plazo para la presentación de solicitudes.

Mutriku, a 24 de abril de 2019.—El alcalde. (2685)

Convocatoria de concesión de subvenciones para el transporte de personas que tengan discapacidad o dependencia reconocida. Año 2019.

Artículo 1. Objeto y financiación.

Esta convocatoria tiene por objeto conceder ayudas económicas individuales a personas con discapacidad o dependientes que por estar gravemente afectadas en su movilidad, tengan problemas para utilizar de forma autónoma los transportes públicos colectivos, al objeto de proporcionar un servicio alternativo de desplazamiento.

Esta convocatoria queda condicionada a la existencia de un crédito presupuestario suficiente en el momento de la resolución de la concesión. Para el ejercicio de 2019 se prevé, el importe máximo de la convocatoria es de 6.300,00 € con cargo a la partida 04002230123100.

Esta convocatoria de ayudas se entenderá finalizada cuando se agote la partida presupuestaria correspondiente.

Artículo 2. Destinatarios/as.

Personas dependientes o con discapacidad reconocida que afecte gravemente a la movilidad y que les impida utilizar los transportes públicos colectivos siempre que requieran de estos medios para sus desplazamientos fuera del municipio.

Artículo 3. Requisitos de los/as solicitantes.

Los solicitantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

1. Estar empadronado en Mutriku.
2. Tener reconocida legalmente la condición de persona dependiente y/o con discapacidad que afecte gravemente a la movilidad e impida utilizar los transportes públicos.
3. Cuando el solicitante está en activo, que el convenio colectivo, el contrato laboral o cualquier otro tipo de certificado no reconozca este beneficio.

Artículo 4. Situaciones susceptibles de subvención.

Serán susceptibles de recibir la subvención de transporte los siguientes casos:

1. Viajes de ida y vuelta al centro de trabajo.
2. Viajes de ida y vuelta a centros de formación.
3. Viajes de ida y vuelta a programas de atención temprana.

4. Salbuespenezko izaera edukitzeagatik kontuan hartu behar diren mugikortasun beharizanak.

5. *artikulua. Diru laguntza kopurua.*

Deialdi honetan aurreikusten diren diru laguntzen kopuruak ondoko irizpide ekonomikoen arabera zehaztuko dira:

1. Taxi zerbitzua erabiltzea beharrezkoa den egoeretan, eguneroko joan-etorri bakoitzagatik emango den gehienezko kantitatea 22,00 €koa izango da, beti ere kontutan hartuta erabiltzaileen kopurua.

2. Taxi zerbitzuaren erabiltzaileei honela kalkulatu zaie diru laguntzaren kopurua: heren bat zerbitzuaren kostuaren arabera beti ere, gehienez, 22,00 €/hileko, bizikidetzaren unitate familiarren diru sarrerak kontutan hartu gabe; eta gainontzeko bi herenak kalkulatzeko familia unitateko diru sarrerak hartuko dira kontuan.

3. Garraio publikoa erabiltzen bada hirugarren pertsona baten laguntzarekin, Lurraldebus edo Euskotrenek bidai horietarako indarrean dauzkaten tarifak hartuko dira kontutan.

4. 4. artikuluan aurreikusitako garraio kasuetarako garraio-bide partikular bat erabiliz gero, Udalak onartuta daukan kilometraje kostua hartuko da erreferentzia moduan eta Arreta Goiztiar programetara joateko hilabeteko gehienez joan-etorriko lau bidai ordainduko dira.

Eskatzaileek ibilgailu bat konpartituko balute, kostu osoa erabiltzaileen artean zati bedinetan banatu beharko da. Ondoren, jasotzen diren puntuetan zehaztutako irizpideen arabera kalkulatu zaio bakoitzari dagokion diru-laguntza kopurua.

5. Diru sarrerak kalkulatzeko familia unitatea hartuko da oinarritzat, hau da, gurasoak eta 23 urte baino gutxiagoko seme-alabak edota anai-arrebak. Elkarbizikidetzan, 23 urte baino gehiagoko eta diru sarrerarik gabeko kideak baldin badaude, horiek ere unitateko kideztat hartuko dira.

6. Gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko familia unitateko kideen sarrera garbien kopurua hartuko da oinarritzat, bertan laneko etekinak, kapital higiezinak eta higigarriaren etekinak eta jarduera ekonomikoen etekinak hartuko dira kontuan.

7. Aurreko baldintzez gain, honako baremoa hartuko da kontuan laguntzak emateko:

Dirusarrerak gehienezko muga / Ingresos máximos	Bizikide bakarra / Único miembro convivencial	Bi bizikide / Dos miembros convivenciales	Hiru bizikide / Tres miembros convivenciales	Lau bizikide / Cuatro miembros convivenciales	Bost bizikide / Cinco miembros convivenciales
12.523,00 €	100 %	100 %	100 %	100 %	100 %
16.904,00 €	50 %	100 %	100 %	100 %	100 %
21.283,00 €	0 %	100 %	100 %	100 %	100 %
25.664,00 €	0 %	50 %	100 %	100 %	100 %
30.045,00 €	0 %	0 %	100 %	100 %	100 %
34.426,00 €	0 %	0 %	50 %	100 %	100 %
38.807,00 €	0 %	0 %	0 %	100 %	100 %
43.188,00 €	0 %	0 %	0 %	50 %	100 %
47.569,00 €	0 %	0 %	0 %	0 %	50 %

6. *artikulua. Eskaerak aurkezteko tokia, epea eta dokumentazioa.*

Deialdi honek aurreikusten dituen diru laguntzak jasotzeko eskabideak, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahalko dira, 2019ko abenduaren 31a arte, Mutrikuko Udaleko erregistro nagusian, eredu arautua erabiliz. Eskariak Mutrikuko Udaleko gizarte zerbitzuei zuzenduko zaie.

4. Se tomarán en consideración las necesidades de movilidad de carácter excepcional.

Artículo 5. *Importe de las ayudas.*

Las cuantías de las ayudas contempladas en la presente convocatoria, se ajustarán a los siguientes criterios económicos:

1. En los casos en que la utilización del taxi sea (obligatorio) necesaria, la cuantía máxima a recibir por el viaje de ida a vuelta diaria será de 22 €, teniendo siempre en cuenta la cantidad de usuarios/as.

2. A los usuarios/as del servicio de taxi se les calculará la subvención del siguiente modo: un tercio de dicha cantidad sin tener en cuenta los ingresos de la unidad de familiar y considerando el costo del servicio y siempre sin superar el máximo de 22,00 €/mes; para calcular los dos tercios restantes se tomarán en cuenta los ingresos de la unidad familiar.

3. Si se utiliza el transporte público, con asistencia de una tercera persona, se tomarán en cuenta las tarifas vigentes que Lurraldebus o Euskotren hayan establecido para el transporte.

4. Si para el transporte de los supuestos previstos en el artículo 4 se utilizara un medio de transporte particular, se tomará como referencia el coste del kilometraje aprobado por el Ayuntamiento y en los desplazamientos a los programas de Atención Temprana se subvencionarán como máximo cuatro viajes de ida/vuelta al mes.

En el caso, de que los/as solicitantes compartan un vehículo, se dividirá el coste total entre los/as mismos/as en igual proporción. Para el otorgamiento de la subvención individual se considerarán los criterios que se determinan a continuación.

5. Para el cálculo de los ingresos se tomará en cuenta la unidad familiar, es decir, los progenitores y los hermanos/as o hijos/as menores de 23 años que no tengan ingreso alguno. Si hubiesen en convivencia personas mayores de 23 años sin ingreso alguno, también se les consideraría parte de la unidad familiar.

6. La capacidad económica se calculará en base a los ingresos netos que perciban los miembros computables de la unidad familiar y comprenderán los rendimientos de trabajo, los rendimientos de capital mobiliario e inmobiliario y los rendimientos de actividades económicas.

7. A parte de los criterios anteriores se tendrá en cuenta el siguiente baremo para la concesión de ayudas:

Artículo 6. *Lugar, plazos y presentación de solicitudes.*

La solicitud para poder acceder a las subvenciones previstas en esta convocatoria se deberá de presentar en el registro general del ayuntamiento de Mutriku a partir de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa hasta el 31 de diciembre de 2019. La solicitud deberá de estar dirigidas al Área de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Mutriku.

Eskaerak honako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira:

– Eskatzailea eta familia unitateko gainerako kideak 14 urtetik gorakoak badira nortasuna egiaztatzeko agiriaren fotokopia.

– Familia Liburuaren fotokopia edo guarda/zaintza/tutorezaren agiria.

– Erroldako egiaztagiriko kolektiboa.

– Bizikidetzaren unitateko kideen diru-sarreraren eta ondarearen ziurpeko aitortpena.

– Bankuko agiriak: tituluak eta kontuak.

– Jabego agiriak edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagiria.

– Errenta aitortpena edo aitortpenaren aurkezteko derrigortasun ezaren ziurtagiria.

– Lanean dauden familiakide guztien diru-sarreraren egiaztagiria.

– Lanean ez dauden eta lanerako adina duten familiakide guztien langabezi-txartela edo ikasten egotearen egiaztagiria.

– Langabezi prestazioen edota jasotzen diren beste edozein prestazioen ziurtagiriak.

7. artikulua. Ebazpena.

Eskabideak aurkeztu ondoren, hauek Ongizate Batzordeak aztertuko ditu. Agiriren bat falta baldin bada, 10 eguneko epea emango da, akatsa konpondu ahal izateko.

Epe hori bukatu eta eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada diru laguntzaren eskabideari uko egin zaiola ulertuko da.

Azkenik, sailaren txosten teknikoa jaso ondoren, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak, diru laguntza emateko proposamena egingo dio Alkateari dagokion ebazpena eman dezan. Dirulaguntza eskari bakoitza indibidualki ebatziko da.

Udalak, batzorde informatzailearen bidez, beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, akordioari buruzko proposamena egin aurretik.

Ebazpena emateko epea, gehienez ere, bi hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezten den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe hori igarota, Udalak eskabideren bati buruzko ebazpenik eman ez balu, eskabide hori ez dela onartu uste izango da.

Diru laguntza ematerako orduan kontuan izan diren baldintzak, edo xede bererako beste erakunde batzuetatik jasotako diru laguntzak, aldatzen badira, diru laguntza emateko akordioa ere aldatu ahal izango da.

Kasu honetan, prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, lau hilabetekoa izango da. Epe hori eskabideak aurkeztu ondoren hasiko da eta epe hori igarota, eskabideren bati buruzko ebazpena jakinarazi gabe egongo balitz, isiltasun administratiboa bidez eskabide hori ez dela onartu uste izango da.

8. artikulua. Diru laguntzaren kopuruen ordainketa eta zuriaketa.

Eskabidea ebazten duen Alkatearen erabakian, alde batetik, diru laguntzarako eskubidea duen edo ez zehaztuko da, eta bestetik, 5. artikuluko baliospena kontuan harturik zein kopuru dagokion.

Hilabete bakoitzaren amaieran epealdi horretako zerbitzuariko dagozkion ordainagiriak aurkeztu beharko ditu onuradun bako-

Las solicitudes de las ayudas deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

– Si el solicitante y los demás miembros de la unidad de familiar son mayores de 14 años, fotocopia de los documentos que verifiquen la identidad.

– Fotocopia del Libro de Familia o documento del guarda/custodio/tutor.

– Documento de empadronamiento colectivo.

– Declaración jurada de los ingresos y patrimonio de la unidad de convivencia.

– Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro: títulos y cuentas.

– Documentos sobre la propiedad o último recibo del Impuesto de Bienes Inmuebles.

– Declaración de la renta o documento que acredite la no obligación de declarar.

– Documento acreditativo de los ingresos de los miembros de la familia que estén empleados.

– Tarjeta de desempleo o documento acreditativo de estar cursando estudios de los miembros de la familia que sean mayor de edad y no estén empleados.

– Certificado de las prestación(es) de desempleo o de cualquier otra tipo de prestación que se perciba.

Artículo 7. Resolución.

Una vez terminado el plazo de entrega las solicitudes serán examinadas por la de Asuntos Sociales. Si faltase algún documento se dará un plazo de 10 días para subsanar el error.

Al término de dicho plazo, si la documentación requerida no ha sido entregada, se entenderá que se renuncia a la petición de subvención.

Por último, una vez examinado el informe técnico del departamento, la comisión informativa de Servicios Sociales propondrá al Alcalde que de la resolución pertinente. Cada subvención se resolverá de manera individual.

En todo caso, el Ayuntamiento, mediante la comisión informativa podrá requerir cuanta información complementaria estime antes de la emisión de la propuesta de acuerdo.

El plazo para dar la resolución será, a lo sumo, de dos meses empezando desde que termina el plazo de entrega de las solicitudes.

El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución, legítima a las partes interesadas para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de subvención.

Si las condiciones para la concesión de la subvención varían o varían las subvenciones que con el mismo objetivo han sido recibidas desde otras entidades, el acuerdo para la concesión de la subvención también variará.

En este caso, el plazo para determinar el procedimiento y su posterior notificación será de un máximo de cuatro meses. El plazo citado comenzará tras la presentación de la solicitud recogida en la convocatoria y el vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución, legítima a las partes interesadas para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de subvención.

Artículo 8. Abono de las subvenciones y justificación.

La resolución del Alcalde resolverá por una parte la concesión o la denegación de la subvención y por otra parte la cuantía correspondiente en virtud del baremo establecido artículo 5.

Al final de cada mes los beneficiarios deberán presentar los recibos que corresponden a los servicios recibidos en dicho pe-

tzak. Ondoren, ordainagiri horietan zehazten diren kopuruak ordainduko dira diru laguntza onartzen duen erabakian zehazturiko baremoaren arabera proportzioan.

Adierazitako ordainketen zuriaketarako onuradunek ondoren adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko diote Mutrikuko Udalari:

– Egindako bidaien fakturak edo ziurtagiriak.

9. artikulua. Ez betetzea eta interpretazioa.

Oinarri hauetan edo diru laguntzaren emakidan zehazten diren betebeharretakoren bat betetzen ez bada, diru laguntza berrikusi egingo da, eta hala badagokio, emandako diru laguntza baliogabetu, murriztu edo itzularazi egingo da.

Era berean, onuradunak bere gain hartuko ditu Udalaren arauak ez betetzeak ekar ditzakeen ondorioak.

Oinarri hauen interpretazioari buruz sor daitekeen edozein zalantza zein ezusteko Alkateak ebatziko ditu, Ongizate Batzordeak informatu ondoren.

10. artikulua. Ordezko araudia.

Oinarri hauetan aurreikusigabekorik balego, 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorrean eta diru laguntzen ematea eta gestio arautzen duen Mutrikuko Udalaren Ordenantza erregulatzailean zehaztutakoa aplikatuko da.

riodo. A continuación se procederá al pago de las cuantías reflejadas en los recibos, respetando la proporción del baremo concretado en la concesión de la ayuda.

Para la justificación de los pagos el beneficiario deberá de presentar al ayuntamiento de Mutriku la siguiente documentación:

– Facturas o justificantes de los viajes realizados.

Artículo 9. Incumplimiento e interpretación.

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes Bases o en la concesión de la subvención, supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

El/la beneficiario/a asumirá, así mismo, las consecuencias citadas en caso de incumplimiento de normas municipales.

Cualquier duda que pudiera surgir en la interpretación de estas bases o los imprevistos que puedan surgir serán resueltos por el Alcalde, previa información de la comisión de la Comisión de Asuntos Sociales.

Artículo 10. Normativa supletoria.

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la Ley 38/2003 General de subvenciones y la Ordenanza reguladora de la concesión y gestión de subvenciones del Ayuntamiento de Mutriku.